



TXINGUDI IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA



Kaixo denoi, Olentzero naiz.
Dakizuen bezala datorren
_Abenduaren 24ean Ikastolako
Guraso Elkarteak antolatuta
kantatzera aterako zarete.

Esan didate hitzordua 16:30tan
izango dela Pio XII plazan. Bertatik
Luis Mariano, Zabaltza plaza eta
Kolon pasealekuan barrena Oiasso
Museora hurbilduko zarete
Urdanibia plazan bukatzeko . Han
19:30ak aldera **TXOKOLATADA**
izango duzue.

Anima zaitetze!

Laster arte...

Hola , soy Olentzero.

Como ya sabéis la Asociación de
Padres-Madres de la Ikastola, ha
organizado para el próximo 24 de
Diciembre un acto para salir a
cantar.

Me han dicho que la cita es a las
16:30 en la plaza **Pío XII.**
Después iréis a Luis Mariano y plaza
del Ensanche hasta el museo Oiasso
para terminar en la plaza
Urdanibia sobre las 19:30, En la
plaza tendréis una **TXOKOLATADA.**

¡Os esperamos eh!

¡Animaos!

Hasta pronto..

GABON KANTAK 2024 TXINGUDI

1) OLENTZERO

Olentzero joan zaigu mendira lanera, intentziuarekin ikatz egitera.

Aditu duenian negua heldu dala, lasterka etorri da berri ematera.

Horra, horra, gure Olentzero, pipa hortzetan duela eserita dago. Kapoiak ere baditu arrautzatxuekin, bihar meriendatzeko botila arduakin.

Inolaz ezin dugu Olentzero ase, bakarrik jan dizkigu hamar txerri gazte. Saiheski ta solomo, makina bat heste, negua heldu da ta alaitu zaitezte.

Horra, horra...

Olentzero buruhaundia, entendimenduz jantzia. Bart arratsean edan omen du hamar arruko zahagia. Ai urde tripa haundia! Tralaralala, tralaralala Ai urde tripa hundia! Tralaralala lala lala

2) HATOR HATOR

Hator, hator, lagun, etxera gaztaina ximelak jatera, gabon gaua ospatutzeko aitaren eta amaren ondoan. Ikusiko dun aita barrezka amaren poz ta atseginez.

Eragion, lagun, aurreko danbolin horri.

Gaztainak erre artian, gaztainak erre artian, txipli-txapla, pun! Gabon gaua pozik igaro daigun.

3) KAX KAX ATEAN

Kax, kax, kax atean: Nor dabil etxean? Ikusi makusi, nor naizen ikasi: praka zabalak, atorra urdina.

Ai ene! Ez dakit ezer ez, ez, ez! Ai ene! Kontatu mesedez. (Bis)

Kax, kax, kax atean: Nor dabil etxean? Ikusi makusi, nor naizen ikasi: mutur zikina, txapela beltza.

Ai ene! ez dakit ezer ez, ez, ez! Ai ene! Kontatu mesedez. (Bis)

Kax, kax, kax atean: Nor dabil etxean? Ikusi makusi, nor naizen ikasi: pipa ahoan, ardoa bertan.

Bai, bai, bai, lehen orain eta gero, zu zara gure Olentzero. (Bis)

4) OLENTZERO BEGI GORRI

Olentzero begi gorri, non harrapatu duk arrain hori? Txingudiko paduretan, bart arratseko hamaiketan.

Olentzero begi gorri, non jango duk arrain hori? Irungo alde zaharrean, adiskideen artean.

Olentzero begi gorri, non harrapatu duk sagardo hori? Meakako sagastian, zakurra lo zegoenian.

Olentzero begi gorri, non edango duk sagardo hori? Jaitzubia aldean, errekaren bazterrean.

5) BIZAR ZURI

Gabonak, Gabonak, hau zoriona, bertsotan ari zaigu gaur amona, ja, ja, ja barrezka dago aitona.

Bizar zuri, bizar zuri, mendi gainak, zuri, zuri, zorionak, zorionak, bertan ditugu Gabonak.

Tximini zulotik norbait sartu da mutur beltz, begi gorri, aibalio, Olentzero dela, halaxe dio.

Bizar zuri, bizar zuri...

Laister urte berri, gaur olentzero, alferrontzi, mozkor eta tripero, hor dago sutondoan bero-bero.

Bizar zuri, bizar zuri...